

/2014 Foru Dekretua, aren (e)koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duena.

ZIOEN AZALPENA

2013ko irailean, Hezkuntza Departamentuaren barnean, Elkarbizitza Batzordea abian jarri zen, elkarbizitza arazoekin lotura duten edo lotura izan dezaketen eskumenak dituzten unitateen arteko koordinazioa bermatu eta hobetzeko.

Abian jarri zenetik hilabete batzuk igaro ondoren, hainbat gai hauteman ditugu eta komeni da horiek osatzea Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuak ezartzen duen ikastetxeetako elkarbizitzarako esparru juridikoaren arabera.

Beste alderdi batzuen artean, ikusi da gurasoen eta legezko ordezkarien erantzukizunen eta eskubideen araubidea zehazteko aukera, bi zentzutatik: alde batetik, elkarbizitza arazoekin loturiko informazioa jasotzeko duten eskubidea errazteko eta, bestetik, hezkuntza erkidegoaren aurrean dituzten eginbeharrak ez betetzearen inguruko prebentzio neurrien arloan.

Era berean, komunikaziorako gailuen presentzia gero eta handiagoa da gizartean eta, hartara, beharrezkoa egiten da espresuki aintzat hartzea hainbat printzipio orokor, prozedura eta erregela, ikastetxe bakoitzak hala dagokionean zehaztu edo garatu beharko dituenak bere barne araudietan.

Departamentuko Elkarbizitza Batzordeak bildutako esperientziak gomendagarri egiten du batzorde hori elkarbizitza arautzen duen esparrura gehitzea eta, orobat, Departamentuak laguntzeko eta informatzeko erabil ditzakeen beste baliabide batzuk aurreikustea.

Bestalde, komenigarria da Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) elkarbizitzaren inguruan oinarrizko araudira gehitu dituen arauak foru ordenamenduan ere sartzea, jada ez bazeuden.

Era berean, hainbat gai tekniko ere sartu dira, kautelazko neurrien, elkarbizitzaren aurkako portaerak egitera bultzatzearen edo prozedura adostuaren gaineko alderdi batzuk argitu edo hobetzeko.

Azkenik, Parlamentuaren 2014ko urtarrilaren 9ko Ebazpenean ezarritako ildo berean, Departamentuko Elkarbizitza Batzordean aztertzen ari dira hizkuntza eredu desberdinak dituen ikastetxe baten barneko edo hizkuntza eredu desberdinak dituzten hainbat ikastetxetako hezkuntza erkidegoen arteko elkarbizitza eta, zentzu horretan, komenigarritzat jo da, beste neurri batzuen artean, horren inguruko zenbait printzipio, eskubide eta eginbehar gehitzea abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan.

Horiek horrela, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren aginduzko txostena jaso ondoren, Nafarroako Kontseiluarekin bat/Nafarroako Kontseiluaren txostena jaso ondoren, eta Nafarroako Gobernuak (e)ko aren (e)ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz, dekretatu dut:

Lehen artikulua. 6. artikulua aldaketa.

1. 6. artikuluko 2. atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

"2. Elkarbizitza Planean prebentzio neurriak, bitartekaritza, elkarbizitzarako konpromisoak eta Elkarbizitzaren Erregelamendua sartuko dira, hala nola elkarbizitza hobetzeko eta gatazkak bake bidez konpontzeko behar diren gainerako neurriak.

Ikasketak hizkuntza eredu batean baino gehiagotan ematen dituzten ikastetxeen kasuan, Elkarbizitza Planak berariaz jasoko ditu aurreko neurriak, eredu desberdinetako ikasleen eta hezkuntza erkidegoaren arteko elkarbizitzarekin loturik.

Ikasketak hizkuntza eredu desberdinetan eman eta instalazioak partekatu behar dituzten ikastetxeek beren Elkarbizitza Planak batera prestatu beharko dituzte eta eredu desberdinetako ikasleen eta hezkuntza erkidegoaren arteko elkarbizitza erraztuko duten neurriak eta jarduerak jaso beharko dituzte bertan."

2. 6. atala gehitu da, eta honela idatzita agertuko da:

"6. Elkarbizitza Planaren barnean, ikastetxe bakoitzak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko protokoloa gehituko du. Bertan zehaztuko dira teknologien erabilera seguruari buruzko arauak, gailuak erabiltzeko baldintzak, hala dagokionean, eta eskola informazioa sarean kudeatzeari buruzko arauak."

Bigarren artikulua. 7. artikulua aldaketa.

7. artikuluan 7. atala gehitu da, eta honela idatzita agertuko da:

"7. Ikasketak hizkuntza eredu bakar batean ematen dituzten ikastetxeetan, 5.atalean ezartzen denaren arabera familiekin eta instituzioekin koordinatu beharreko hezkuntza neurrien artean, nahitaez gehituko dira ikasleei eta hezkuntza erkidegoari beste hizkuntza eredu bateko edo batzuetako ikastetxeetako ikasleekin eta hezkuntza erkidegoekin bizitzea ahalbidetuko dieten neurri batzuk".

Hirugarren artikulua. 9. artikulua aldaketa.

9. artikuluan 3. atala gehitu da, eta honela idatzita agertuko da:

"3. Ikastetxeek konpromiso idatziak proposatzen ahalko dizkiete jazarpeneko portaeren arduradunak izateagatik hezkuntza neurriak jaso dituzten ikasleen familiei, portaera horiek ikastetxearen eta familiaren ahalegin bateratuaren ondorioz bideratu daitezzen sustatzeko.

Konpromiso horiek sinatzeari uko eginez gero, ukapen hori agintari eskudunei jakinarazi beharko zaie, egiaztatzen bada horren ondorioz legeek adingabeen zaintzarako ezartzen dituzten babeserako eginbeharrak ez direla betetzen ari edo ez direla egoki betetzen ari, eta horrek adingabeak behar duten laguntzaz gabetzea ekar badezake.”

Laugarren artikulua. 12. artikuluko 5. eta 6. atalen aldaketa.

12. artikuluko 5. eta 6. atalak aldatu dira, eta honela idatzita agertuko dira:

“5. Edozein hezkuntza neurri aplikatu aurretik, zilegi izanen da ohartarazpena, kargu-hartzea eta zuzentzeko errekerimendua egitea, ahoz edo idatziz, baita portaera desegokiari eta haren ondorioei buruzko gogoeta bat ere.

Debekatutako ekipo, material, jantzi edo aparatuak eramateagatik aplikatu daitezkeen hezkuntza neurriak gorabehera, ikasle horiei haiek berehala entregatzeko exijitzen ahalko zaie eta eskolak bukatu bitartean ikastetxearen eskuetan geratuko dira edo, ikastetxeko Elkarbizitzaren Erregelamenduan hala aurreikusten bada, ikasleen gurasoek edo legezko ordezkariak jaso arte.

6. Neurri jakin bat aplikatzea egokia ote den erabakitzeke, irakasle arduradunek eta zuzendaritzak ondoko hauengana jotzen ahalko dute aholku eske: ikastetxeko orientatzailea, ikastetxeko Elkarbizitza Batzordea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza Departamentuko

Elkarbizitzarako Aholkularitza, Hezkuntzako Ikuskatzailetza eta Hezkuntza Departamentuko Elkarbizitza Batzordea.”

Bosgarren artikulua. 14. artikulua aldaketa.

1. 14. artikuluko 1 b) atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

“Eskolara ez joatea edo berandu iristea justifikatu gabe. Eskolara ez joatea edo berandu iristea justifikatu gabetzat hartuko da idatziz desenkusatzen ez denean eta, hala eginda ere, ikastetxeak eskolara ez joatea edo berandu iristea justifikatzen ez duela uste duenean.

Ikastetxeko zuzendaritzak edo Elkarbizitzaren Erregelamenduak zehaztuko ditu hutsegiteak justifikatzeko prozedura, idatziz desenkusaturakoak ez-justifikatutzat hartzeko irizpideak eta justifikazioaren ondorioetarako informazioa jasotzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak.”

Seigarren artikulua. 17. artikulua aldaketa.

1. 17. artikuluko 1. atalean ñ) azpiatala gehitu da, eta honela idatzita agertuko da:

ñ) Ikasleek sinatzen dituzten elkarbizitzako konpromisoak, Foru Dekretu honetako 9.1 artikuluan aipaturakoak, ez betetzea.

2. 17. artikuluko 2. atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

"2. Era berean, elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak dira beste ikasle bati edo batzuei bultzatzea aurreko atalean bereziki kaltegarritzat jo den edozein portaera izatera."

3. 3. atala gehitu da, eta honela idatzita agertuko da:

"3. Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, ahalmena dute beren Elkarbizitzaren Erregelamenduan aurreko bi ataletan adierazitako portaerak zehazteko, kontuan harturik Hezkuntza Proiektua eta ikastetxearen berezko izaera."

Zazpigarren artikulua. 19. artikulua aldaketa.

19. artikuluan 4. atala gehitu da, eta honela idatzita agertuko da:

"4. 17.artikuluko 1 a) atalean ezarritako portaerek eta artikuluko horretan ezarritako beste edozein portaerak, horien jatorrian edo jomugan generoan, sexu orientazio edo identitatean, arrazakerian, etnialan, erlijioan, sinesmenetan edo desgaitasunean oinarrituriko bereizkeria edo jazarpena badago, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira, ondoko neurri zuzentzaileak izanen dituzte loturik: ikastetxera joateko eskubidea etetea hamabost eskola egunetarako gehienez edo, derrigorrezkoen ondoko ikasketak egiten ari diren ikasleen kasuan, eskubide hori ikastetxe bakoitzak bere Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezartzen duen gehienezko epean etetea, edo matrikula deuseztatzea."

Zortzigarren artikulua. 20. artikuluko 4. atalaren aldaketa.

20. artikuluko 4. atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

“Aplikatzen diren kautelazko neurriak, halakorik bada, prozedura bukatu arte mantentzen ahalko dira, eta aplikatu beharreko neurriaren berdinak badira, denbora muga proposatutako neurrirako ezarritakoa izanen da eta, edonola ere, 19. artikuluan finkatutako gehienezko epeen barnean egon beharko du. Ikasleak kautelazko neurrien pean ematen duen denbora aplikatzen den hezkuntza neurrian ezartzen den denboratik deskontatuko zaio.”

Bederatzigarren artikulua. 23. artikuluko 2. atalaren aldaketa.

23. artikuluko 2. atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

“Ezin izanen da espedientea prozedura adostuaren bidez tramitatu ikasturte berean ikasleari aplikaturiko hezkuntza neurriren bat ez bada bete edo ikastetxe bakoitzak bere Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezartzen dituen kasuetan”.

Hamargarren artikulua. 26. artikuluko 2. a) atalaren aldaketa.

26. artikuluko 2. a) atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

"a) Seme-alaben ikaskuntza prozesuaren aurrerapenei eta haien gizarte eta hezkuntzako integrazioari buruzko informazioa jasotzea.

Hori dela eta, ikastetxeek prozesu horiei buruz behar den informazio guztia emanen diete gurasoei edo legezko ordezkariari, eta elkarbizitza gatazkak daudenean, ukitutzat jotzen diren adingabeen legezko arduradun guztiei informatuko zaie edo informazioa jasotzeko aukera emanen zaie, behar bezalako erreserbarekin babestu beharreko datuei eta interesei dagokienez, hala behar denean. Ahalik eta epe laburrenean informatuko da eta, nolana ere, epe horrek ezin izanen du gertakariak jakiten direnetik hiru eskola eguneko epea gainditu."

Hamaikagarren artikulua. 27. artikulua aldaketa.

1. 27. artikuluko 3. atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

"Ikastetxeko Elkarbizitza Planean familiek ikastetxeko bizitzan izanen duten parte-hartzea arautuko da, elkarbizitzari buruzko alderdi guztietan.

Eskola jantokiak kudeatzen dituzten entitateek, beren autonomia erabiliz, jantokietako elkarbizitza arauak ezarriko dituzte, ikastetxeko Elkarbizitzaren Erregelamenduarekin koherentzian."

2. 27. artikuluan 5. atala gehitu da, eta honela idatzita agertuko da:

"5. Gurasoek edo legezko ordezkariak 2. atalean ezarritako erantzukizunak larriki betetzen ez badituzte edo behin eta berriro betetzen ez badituzte, ikastetxeko zuzendariak mugatu dezake haiek ikastetxean sartzeari gehienez ere hamabost eskola eguneko epean, edo murriztu dezake hezkuntza erkidegoko kideren batekin duten harreman pertsonala, Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezartzen diren baldintzetan eta bertan agertzen den prozedurari eta mugei jarraikiz.

Ikastetxean sartzeko mugaren neurria aplikatzen hasi baino lehen, ikastetxeak ukitutako aitari, amari, edo legezko ordezkariari galdetu beharko dio zein izanen den mugak irauten duen bitartean ikastetxera joateaz arduratuko den pertsona, horrelakorik beharrezkoa bada, Elkarbizitzaren Erregelamenduan ez badago alde aurretik ezarrita.

Harreman pertsonalak murrizten diren kasuetan, familiari jakinaraziko zaio beharrezkoa den informazioa helarazteko erabiliko den prozedura alternatiboa.

Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, beren Elkarbizitzaren Erregelamenduan zehazten ahalko dute zein portaeraren ondorioz aplikatu daitezkeen denbora batez instalazioetan sartzeko mugaren neurria, eta muga horrek zenbat iraunen duen portaeren edo izan daitezkeen inguruabarren arabera."

Hamabigarren artikulua. Bosgarren xedapen gehigarriaren aldaketa.

Bosgarren xedapen gehigarriko 2. atala aldatu da, eta honela idatzita agertuko da:

"2. Foru dekretu honen arabera bereziki kaltegarriak diren portaeren ondorioz, Fiskaltzak irekitzen badu Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitako prozedura bat, baloratuko da egokia den edo ez foru dekretu honen 20. artikuluan araututa dagoen ohiko prozeduraren tramitazioa etetea."

Hamahirugarren artikulua. Zortzigarren xedapen gehigarria sartzea.

Zortzigarren xedapen gehigarria sartu da, eta honela idatzita agertuko da:

"Zortzigarren xedapen gehigarria. Hezkuntzaren eta gizarte politiken arloan eskumena duten departamentuen laguntza.

1. Ohiz kanpoko kasuetan, elkarbizitza gatazkak beren inguruabar pertsonal edo familiarrengatik hezkuntza zein laguntza neurriak behar dituzten ikasleekin loturik daudenean, ikastetxeek Hezkuntza Departamentuko Elkarbizitza Batzordeari eskatzen ahalko diote baloratzeko bidezkoa den beharrezko laguntza ematea, horretarako Gizarte Politiketako Departamentuarekin koordinatuz.

2. Ikastetxeek Hezkuntza Departamentuko Elkarbizitza Batzordeari eskatzen ahalko diote idazkari bat izendatzeko, elkarbizitzarako bereziki larriak diren portaeren aurrean

hezkuntza neurriak aplikatzeko ohiko prozeduren instrukzioan lagundu dezan, Hezkuntzako kontseilariak ezartzen dituen baldintzetan.”

Hamalagarren artikulua. Bederatzigarren xedapen gehigarria sartzea.

Bederatzigarren xedapen gehigarria sartu da, eta honela idatzita agertuko da:

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeren gaineko balorazioak.

1. Elkarbizitza Planaren urteroko berrikuspen prozesuaren barnean baloratu beharko dira neurriak aplikatzea behar izan duten elkarbizitzarako bereziki larriak izan diren portaerak.

2. Ikastetxeek urtero Elkarbizitza Batzordeari igorri beharko diote neurriak aplikatzea behar izan duten elkarbizitzarako bereziki larriak izan diren portaeren kopuruaren gaineko informazioa, zehaztuz mota bakoitzeko portaeren kopurua eta datuak sexuaren arabera bereiziz, gehitu nahi den zeinahi beste informaziorekin batera. Ez da adierazi behar zein pertsona zehatzi aplikatu zaizkion neurriak.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.



Iruñean, 2014ko aren (e)an.

BORRADOR